

 kutxabank	ORDAINKETEN KUDEAKETA INTEGRALA	EPIGRAFEA 15
	Egun honetatik indarrean: 2021.01.25	. orria 1(e)tik

1. Confirming-en irekiera-komisioa.

Kontraturako baimendutako hasierako arrisku-mugaren gaineko % 2,00, kontratuaren titularrak kontratua formalizatzean, aldi bakarrean, kobratzekoa. 100 euroko gutxienekoa.

2. Confirming-kontratua luzatzeagatiko edo berritzeagatiko komisioa.

Bezeroarekin formalizatutako arrisku-lerroaren urteko berrikusketak edo berritzeak kontraturako baimendutako arriskuaren egungo mugaren gaineko % 2,00; urtero kobratuko zaio titularrari berritzea egitean. 100 euroko gutxienekoa.

3. Sortaren kudeaketagatiko komisioa.

% 0,25 faktura bakoitzaren gainean, kontratuaren titularrari ordaintzeko kudeatzeko sorta jasotzen den bakoitzean kobratzekoa, faktura bakoitzeko 3,00 euroko gutxienekoarekin.

4. Ordainketa dokumentuak igortzeagatiko komisioa.

- Transferentziak: ikusi 82 epigrafea.
- Banku txekeak: ikusi 3 epigrafea.
- Helbideratutako ordainketak: dokumentu bakoitzaren zenbatekoarekiko %0,2 eta 1,80 euroko gutxienekoarekin dokumentu bakoitzeko.

5. Hornitzaileari kobrantza aurreratzeagatiko komisioa.

- Hornitzaileak aldeztatik ordaintzen zaion faktura bakoitzaren% 1,00, hornitzaileak faktura bat aldeztatik ordaintzea kudeatzen duen bakoitzean, gutxienez 50,00 euro faktura bakoitzeko. Komisio hori hornitzaileari kobratzen zaio kudeatutako fakturen guztizko kopurua murriztuz, betiere aurrerapena hornitzaileak espresuki eskatuta egiten bada.

6. Gertakariengatiko komisioa.

Gertakari bakoitzeko 12,00 euroko komisioa aplikatuko da.

Gertakaritzat joko da ordainketa egiteko eskatu duenak aginduta egin beharreko ordainketaren egoerari eta datuei buruzko aldaketa oro.

1. oharra Posta-gastu gisa jasoko dira eskaintza edo ordainketarako dokumentu bat bidaltzen edo igortzen den bakoitzean sortutako gastuak une bakoitzean indarrean dauden posta-tarifen arabera. Era berean, sortutako telefono eta abarretako gastuak jasoko dira.

2. oharra Fede-emaile publikoaren esku-hartzeagatiko gastuak bezeroaren kontura izango dira. Behar bezala justifikatuta egon daitekeen kanpo-izaerako beste edozein kontzeptu bezeroari jasanaraziko zaio osorik.